



BARREN
TOKIKOM



Handia egin du

matricúlate en

aek

euskara praktikoa

Izena emateko epea: hilaren 25a arte



EUSKARA IKASTAROAK

CURSOS DE EUSKERA

**Elgoibarko AEK euskaltegia
Gabriel Kurutzelaegi 10**

(Toletxegain tren geltokiaren besteko aldean)

607 601 423

elgoibar@aek.eus

Baldintzak beteta, matrikula erdi-prezioan eta bekak udalari esker.



IGOR

"C1 =3.maila, bihar edo etzi beharko dudalako"



MARI SOL

"Quiero aprender euskera por mi hija, el trabajo e integrarme más con la gente del pueblo"



ROSA

"Euskaraz hitz egitea aberastasuna da. Mundua eta bizitza hedatzen ditu"



IKER

"B2=2. maila, lanagatik"

Erroma Euskal Herrian hitzaldi-zikloa



EUSKALDUNTZE BERANTIARRAREN TEORIA: EGIA ALA GEZURRA?

Luis Mari Zaldúa, Hizkuntzan eta Hizkuntzalaritzan doktorea

Euskalari gehienek aspalditxo alboratu zuten arren, euskalduntze berantiarraren teoria bolo-bolo ibili da hainbat euskaltzaleren artean, telebistan hauspotu zenetik. Zalduek euskalduntze berantiarraren teoria noizkoa den eta zertan datzan azalduko du. Eta aldeko eta kontrako argudioak ere azalduko ditu, epigrafiaren eta toponimiaren arloko zenbait datutan oinarrituta.

Irailak 18, asteazkena
19:00

Kultur Etxeko hitzaldi-gelan



IBON SERRANO LASA

Ingeniaria



“Bukatu dira lanaren izaerari buruzko orain arteko paradigmak”

- Hobe duzu aurtengoan Txiki egunik ez aipatu, Done Bartolome bezain larrugabetu utz ez zaitzaten.

Hobe, bai, oraingoan lan munduaren etorkizunari buruzko hainbat *erreflección* landu ditut.

Bukatu dira lanaren izaerari buruzko orain arteko paradigmak. Teknogiaren etengabeko hazkunde azeleratuak mundua zilipurdikatzen baitu; enpleguan, negozio eredu eta kontsumo ohiturengan duen eraginaz.

Ekonomi sektore guztietan automatizazioa izugarri hazten den neurrian, konputertzazio ahalmena ia urtero da bikoizten; Adimen Artifiziala ere ate joka!

Bitartean, oximoron bat bailitzan, hor ditugu agintariak enpleguari buruzko betiko aldarriez.

Eta egia da mundu berri honek enplegu berrien beharra sortzen duela; baina, dagokion neurrian? Soldatapeko enplegu galararen drama hor dugu beraz.

Baina ordea, gizatasunaren muinean, ez luke berri pozgarri izan beharko? Txo! Makinek egin ditzatela lan gogor eta aspergarriak! eta gainera zergak ordainduz! Giza historian behingoz lan ditzagun aisialdi aberatsa, elkarbizitza, naturaren zainketa, kultura...

- Aitzitik, ezinezkoa dirudi; sistema kapitalistak ongi baino hobeki txertatzen dizkigu eta beldur anitz...

Esate baterako: Txinarrak aizu! Bizilagunak auto berria! Etorrin horrek ere diru-laguntza? Nork ordainduko pentsioak? Merca-donan kremak merkeago! Eta, noiz joan behar al dugu behingoz “Lehoi erregea” ikustera? Auto berria daukan bizilaguna joan da

birritan familiaz hegazkinez.

Beraz, planeta eta gu hondatuko gaituen lasterketan jarraituko al dugu? Ondasunak esku gutxitan meta araziz eta klase baxu ezjakin, otzan, prekario eta kontsumista garatuaz soilik?

- Berrito Homo apocalypticus?

Ez, badaude berri interesgarriak. Izan ere, Luxemburg, Finlandia eta Norvegia, epe ertainerantz begira, ari baitira nolabaiteko harat-honakoak saiatzen oinarriko errenta soziala deritzen kontzeptuaz, oker ez banabil 1600€ inguru hileko hiritar orendako.

- Disparatea ez ote?

Nik ere sarri daukadan gizakiarenganako X ikusmoldeaz baietz esan beharko.

Baina Y ikuspuntua gailenduaz, badirudi itxaropenik egon badagoela gizarte ahaldundu, jasangarriago, zoriotsu eta berritzaileago lortzeko. Gutxienez, ez al du mereziko ba probatzeak?



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irtati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► IRAILAREN 14AN BILBON MANIFESTAZIOA

Irailaren 16an Espainiako Auzitegi Nazionalean 47 euskal herritarren aurkako epaiketa hasiko da. Presoak juridikoki asistitzearen, haien osasunaz kezkatzearen, edo besterik gabe, haien eskubideak babestu eta defendatzearen epaituko dituzte. 601 urteko espetxe zigorra eskatzen duen epaia honen bultzatzaileak iraganean blokeatu nahi du Euskal Herriko egoera politikoa. Euskal gizarteak, aldiz, behin eta berriro adierazi du egoera hori gainditu nahi duela. Giza eskubideak errespetatzeko, iraganaren zauriak ixteko eta egungo eskubideen urraketak amaitzeko aldarrikatzen ari da euskal gizarteak (euskal preso politikoekin egiten dena batik bat). Horiek horrela, Elgoibarren autobusa antolatu dugu Bilboko manifestaziora joateko. Irteera 16:00etan izango da, Txankakoako autobus geltokitik. Izen ematea Jai Alai, Iturri edo Lanbroan tabernetan egin ahalko da.

Elkartasun taldea

► IBAI GARBI BATEN ALDE

Beste urtebetez, eta aurten hamargarrenez, Deba ibaia garbitu genuen herriko jaietan, Gazte Asanbladaren antolakuntzapean eta Malako Jai Batzordearen egitarauaren barruan. Jeitsi ginen goizean goiz eta umorez, eta atera genuen beste behin era guztietako traste eta zaborrak: patinete, aulki, sakelako telefono, pila, burdina puskak... Balio izan zigun ibaiko bizitzara hurbiltzeko, eta jabetzeko nola aldatu den azken hamar urte hauetan, hobera, ustez behintzat.

Deba ibaiaren garbiketak badu laguntzaile sare fidela, eta baliatu nahi genuen tarte hau haiek aipatzeko ere. Eskerrak eman nahi dizkiogu Paula Herasi, urteurrenerako osatu genuen mosaikoarekin egindako lanagatik, beti borondatez eta atsegin. Eskertu behar BARREN aldizkaria eta Asier Orbea ere, emandako hedapenagatik, eta Iñaki San Martín *Soarte*, urtero legez argazki kamerarekin prest. Sahatzuri, mareatu ge-

nuelako, eta brigadari eta mankomunitari, beharrezko materiala eskainiz lana erraztearren.

Eta nola ez gogoratu, aurten ere hankak lokatzetan sartu eta bustitzera animatu direnekin, eta baita hamar urte hauetan era batera edo bestera parte hartu duten guztiekin; 140 lagunetik gora gure datuen arabera. Egindako lanak balio izan badu herri honen zati batek ibaiari bizkarra emateari uzteko, gure eraginaren kontzientzia handiagoa hartzeko edo auzolana indartzeko, gu ase. Eta desio, jarrai dezagula aurrerantzean ere bide berean, garbitzeko beharrik ez dagoen arte.

Ibai garbiketako lan taldea




IV. URTEURRENA

Lourdes Leyaristi Echeverria

2015ko irailaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan

Etxekoak



V. URTEURRENA


Juanito Loiola Bergaretxe

2014ko irailaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

Beti egongo zara gure bihotzean. Asko maite zaitugu

Etxeko sendiak





Arg.: Euskotren Liga



Leire Garate, Euskotren Liga irabazi ostean.

▶ LEIRE GARATE ARRAUNLARIA

Euskotren Liga erakustaldia emanez irabazteaz gain, Kontxako Bandera preziatua ere irabazi du Leire Garatek (Elgoibar, 1988) Orioko traineruarekin. Bandera irabazteko faborito nagusia zen Orioko taldea domekan, eta ez zuen hutsik egin. Nagusitasun osoz irabazi zuten kanporaketa, Arraun Donostia bigarren sailkatuari 28 segundoko aldea aterata. Hegan egin zuten Kontxako Badian. Garatek Ondarrun eman zituen aurreneko pausoak, bateletan, eta 2011tik Orion dihardu arraunean. Denboraldi historikoa izan da aurtengoa Orioko taldearentzat eta Leire Garaterentzat. Une hunkigarriak bizi izan zituzten bai arraunlariek eta baita arraun zaleek ere domekan Kontxan, memorian iltzatuta geratuko diren uneak.

- AINHOA ANDONEGI -

“Arraunean neukan ametsa bete dut Kontxako Bandera irabazita”

♦ Handia lortu duzue Txiki ontzian. Nolako izan zen domekako jardunaldia Kontxako Badian?

Kontxako lehenengo jardunaldian sei segundoko aldea lortu genuen, baina bigarren jardunaldirako alde hori ahaztu eta zero-tik hasiko bagina bezala lehiatu nahi genuen. Hasieratik estropada lehertzea nahi genuen, eta gogor hasi ginen kanporaketa gure alde jartzeko. Horrek konfiantza eman zigun, baina arraunean edozein momentutan aldatu daitezke gauzak, beraz, zia-bogara arte dena ematen joan ginen. Gogor eta kontzentratuta joan ginen, itsasoak ere ez zuen asko laguntzen-eta. Eman eta eman joan ginen. Ziabogan buelta hartu genuenean konturatu ginen alde nahikoa geneukala bigarrenarekin eta orduan hasi ginen gozaten. Patrioiak ere esan zigun gozatzeko momentu hartaz, momentu hartan biziko genuena berriz bizitzea zaila izango zela eta aprobetxatzeko momentu hura.

♦ 28 segunduko aldea atera zenioten bigarren sailkatuari eta garaipenaz gozatzeko aukera izan zenuten. Zer sentitu zenuen une hartan?

Moila eta portuko arrapala guztia jendez beteta eta denak horiz jantzita ikustea oso polita izan zen, eta jende guzti horren artean maite duzun jendea ikustea animoak ematen oso hunkigarria da. Beti pentsatzen dugu horrelako harrerak gizonen taldeei egiten zaizkiela, baina jende guzti hura guretzako zegoen han. Sinestezina izan zen. Domekako zer izan zen pentsatze hutsarekin emozionatu egiten naiz.

♦ Euskotren Liga nagusitasun osoz irabazi ostean Kontxako Bandera irabazteko faborito nagusiak zineten. Presio handia sentitu duzue?

Faborito izate hori kanpotik jarri diguten etiketa bat izan da. Guk ez genuen gure burua faboritotzat. Bagenekien gure lana ondo eginda eta entrenamenduetan egiten duguna estropadan eginda irabaztetik gertu ibiliko ginela, baina Arraun Lagunak taldea ere gogorra da, eta bagenekien gertu izango genuela. Gu gure lana egitera joan ginen, eta ez genuen momentu batean ere komentatu faboritoak ginenik.

♦ "Egia esan ez dakit zer izango litzatekeen Kontxako bandera irabaztea, inoiz ez dudalako arrauna orain bizi dudan moduan bizi, baina sekulakoa dela esaten dute gertutik bizi izan dutenek. Kontxako estropada parranda on bat botatzeko ai-



tzakia baino ez zen orain arte niretzako". Zure hitzak dira, BARRENI 2012an emandako elkarrizketa batekoak. Erantzuteko moduan zaude orain. Nolakoa da Kontxako Bandera irabaztea?

Gertutik bizi izan zutenek sekulakoa zela esaten zutela esan nuen orduan, eta orain esan dezaket baietz, horrela dela. Oraindik domekakoa asimilatu gabe daukat. Eguna luzea izan zen, baina oso azkar pasatu zitzaidan. Arraunlari bezala nire ametsa bete dut Kontxako Bandera irabazita. Sekulakoa izan zen.

♦ **Nadeth Agirre patrioak esan du domekakoa hamar urteko lanaren emaitza izan dela. Nolakoak izan dira zuretzat hamar urte horiek?**

Oriki orain dela hamar urte atera zuen lehenengo aldiz trainerua uretara, eta handik hiru bat urtera batu nintzen ni taldera. Hasierako urteak ikasteko izan ziren denontzat. Lehenengo helburua trainerua uretara ateratzea zen, eta hortik aurrera teknika ikasi eta hobetzen joatea. Poliki-poliki hasi ginen hobetzen, eta banderak eskuratzea gero eta gertuago ikusten genuen, baina ez zitzaigun saria iristen. Aurten lortu ditugu, eta lorpen handia izan da guretzat.

♦ **Aurtengoa historikoa izan da: Liga eta Kontxako Bandera irabazi dituzue.**

Ligan beste bandera garrantzitsu batzuk ere irabazi ditugu, gainera. Zarauzkoa, esaterako; Kontxako Banderaren ostean bera da bi jardunalditara jokatzeko den estropada garrantzitsuena

"Inon ez dute bizi arrauna Orion bizi duten bezala"

eta hori irabaztea ere handia da. Oriko Bandera ere irabazi genuen, eta etxean irabaztea ere polita izan zen. Oso pozik gaude.

♦ **Zein lorpenek egin dizu ilusio handiagoa: Liga irabazteak ala Kontxako Bandera eskuratzeak?**

Dudarik gabe, Kontxako Bandera irabazteak. Prestigio handia dauka eta Kontxan bizi dena oso berezia da. Kontxako estropada barrutik bizitzea izugarria da. Han zegoen jendetza, denak guri animoak ematen, guretzako zeuden han! Sinestezina.

♦ **Aurten goia jo duzue. Zein helburu dituzue aurrerantzean?**

Bide berean jarraitzea gustatuko litzateke. Teknikoki beti dago zer hobetu, eta hobetzen jarraitzea da gure asmoa. Talde guztiak goraka doaz, eta urtetik urtera hobetzen joan beharra daukagu. Datorren urtean bandera guztiak irabaztea ondo legoke, beste lorpen handi bat izango litzateke guretzat.

♦ **Orion arraunak tradizio handia dauka, gizonetzakoetan batez ere. Emakumezkoen taldeak zein harrera dauka herrian?**

Orain dela urte batzuk desberdintasuna handiagoa zen. Herriarrek babes handiagoa ematen zieten gizonetzakoei, baina poliki-poliki gauzak aldatzen doaz, eta gaur egun jendea asko poztzen da gure garaipenekin ere.

♦ **Domekan harrera hunkigarria egin zizuen herriak. Gizonetzako taldekoek pasiloa egin zizueten gainera. Nolako harremana duzue gizonetzako taldearekin?**



Leire Garate, besoak altxata, Kontxako Bandera irabazi berritan.

Entrenamenduetan ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin eta harreman ona daukagu. Konfiantza handia ematen digute, eta asko pozten dira irabazten dugunean. Estropada hasi aurretik animoak ematen dizkigute beti, guk beraiei ematen dizkiegun bezala, eta irabazten dugunean zoriondu egiten gaituzte. Poztasuna konpartitzen dugu.

♦ **Gizonezkoen eta emakumezkoen kirolean desberdintasunak daude, baina arraunean eman dira berdintasunerako pausoak, sariak berdinduz, esaterako. Nola dago egoera gaur egun? Bizi al daiteke arraun egitetik?**

Emakumeok ez, eta gizonak ere gutxi bizi dira arraunetik. Emakumezkoen arrauna asko hobetu da aspektu horretan. Gaur egun bandera guztiek dute saria, Kontxako banderan orain dela urte batzuk berdindu zituzten sariak, eta aurten Zarauzko Banderan ere berdindu dituzte. Lan asko ari dira egiten aspektu honetan, eta emakumea gero eta indar handiagoa hartzen ari da arraunean.

♦ **Zu nola iritsi zinen arraunera?**

Orain dela urte batzuk arte nik arraunari buruz ez nekien gauza askorik. Arraunean ibiltzen ziren Ondarruko lagun batzuk egin nituen eta haien bitartez probatu nuen. Ondarrun hasi nintzen bateletan, eta han nenbilela jakin nuen Orion emakumezkoen arraun taldea sortu nahi zutela. Izena eman nuen, eta gaur arte.

♦ **Zein ezaugarri behar dira arraunlari izateko?**

Arraunerako gogoia izanez gero, entrenatuz eta gogotik saiatuz, lor daiteke arraunlari izatea. Pertsona bakoitzak bere ezaugarri fisikoak ditu, baina arraunean ere postu desberdinak daude, eta postu guztietarako ez dira ezaugarri berdinak behar. Ni aurtean joaten naiz, eta postu horrek eskatzen du arina izatea. Puntan traineruak kolpe handiak jotzen ditu, eta pisuak garrantzia dauka leku horretan. Beste postu batzuetan indarra behar da, baina nire postuan arina izatea eta teknikoki olatuetan ibiltzeko prestatuta egotea behar da. Ziabogan olatua hartzen jakitea garrantzitsua da. Niri olatuekin arraun egitea gustatzen zait; errekan ibiltzeak ez dauka emoziorik.

♦ **Zein ezaugarri ditu zuen taldeak?**

21etik 36 urtera bitarteko emakumezkoak gaude, baina talde moduan *piña* bat gara, eta ez da adin tartea igartzen. Batzuk herrikoak dira, eta beste batzuk, kanpotik etorritakoak. Giro oso ona daukagu, eta horrek ematen digu indarra.

♦ **Nolakoak dira zuen entrenamenduak?**

Denboraldian zehar astean egun bat bakarrik libratzen dugu. Entrenatzaileak jartzen dizkigu egin beharreko ariketak, eta neguan, astegunetan batez ere, Elgoibarren entrenatzen dut. Asteburuetan sartzen gara uretan, eta uretako entrenamenduak denok elkarrekin egiten ditugu Orion.

♦ **Ondarru eta Orio ezagutu dituzu arraunari lotuta. Zein modutan bizi dute arrauna?**

Trainerua duten herri guztietako herritarrek jarraitzen dute



Leire Garate (behean, makurtuta), etxeokokin, domekan, Kontxako bandera irabazi berrian.

arrauna moduren batean, baina esango nuke inon ez dutela bizi arrauna Orion bizi duten bezala. Orion ez dago bandera horia zintzilikatuta ez daukan eraikinik, eta Oriora joaten diren guztiek berehala ikusiko dituzte bandera horiak toki guztietan. Beste herri batzuetan futbola edo eskubaloia izaten dira kirol nagusiak, baina Orion arrauna da. Herri guztia dago arraun taldearen atzean,

eta sariren bat irabazi izan dugunean, herri guztia irten izan da guri harrera egitera. Urte guztian zehar jarraitzen ez duenak ere, Kontxako Bandera behintzat jarraitzen du.

♦ **Noiz arte jarraituko duzu arraunean?**

Ez dakit. Denboraldia bukatzen denean beti egoten naiz zalantzan,

eta ez dut jakiten hurrengo denboraldian hasiko naizen edo ez. Baina bi hilabeteko atsedenen ostean, berriz sartzen zait gogoia. Momentuz, denboraldiz denboraldi hartzen dut erabakia. Bi urtez laga egin nuen, atsedeen pixkat behar nuen, baina gorputzak bueltatzeko eskatu zidan, eta orain dela hiruzpalau urte hasi nintzen berriz. Ez da erraza lana eta arrauna uztartzea, baina gogoz eta ilusioz, dena egin daiteke.

*“Denboraldian zehar
astean egun bat
bakarrik libratzen dugu”*

Hilabeteko greba hasiko dute Gipuzkoako Zahar Etxeetan



Grebara itzuliko dira Gipuzkoako Zahar Etxeetako langileak. Urtebete pasatxo daramate lan itunaren aldeko mobilizazioetan, eta aurreko ikasturtean, 88 egun egin zituzten greban ELAk deituta, eta beste hogei bat, LABek deituta. Esana zuten egoera aldatu ezean, ikasturte hasierarekin berriro ekingo ziotela borrokari. Irailaren 19an hasi eta urriaren 18ra bitartean egingo dute greba. ELAk berriaz salatu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarrera. "Propaganda instituzionala egiteaz harago, Foru Aldundiak negozioa egin nahi du gure aiton-amonekin eta ezin dugu ahaztu milaka gipuzkoarren eragin zuzena duela sektore honek", adierazi zuten prentsurrekoan. Prekarietatearen alde egitea egozten diote Aldundiari: "Gizon eta emakumezkoen arteko soldata arrakala eta genero desberdintasuna erabili ditu negozio tresna gisa eta euren mesedetara dauden enpresarien alde".

Greba mugagabeen dauden Tecman enpresako langileek itxialdia hasi dute Mendaroko ospitalean



Uztailaren 2az geroztik greba mugagabeen dauden Tecmaneko enpresako langileek itxialdiak egin dituzte asteon Mendaroko Ospitalean hitzarmen duin baten alde hasitako borrokaren baitan, eta akordiorik ezean, borrokan jarraituko dutela jakinarazi dute.

Mendaroko ludoteka berria irailaren 30erako prest

Irailaren 30ean zabalduko dute Mendaron ludoteka berria. Herriko Enparantzatik Azpilgoeta auzora aldatu dute lekuz ludoteka, Zelaikua plazara, eta Udaletik jakinarazi dutenez, azkeneko ukituak baino ez ditu falta irailaren azkeneko egunean zabaltzeko. 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik egun horretan ludoteka, eta lehen egunerako Bea Larrañaga pailazoaren emanaldia antolatu dute. *Hemendik Parisera* izenburuko saioa izango da, 5 eta 10 urte bitarteko neska-mutilentzat. Emanaldiaren gainean gehiago jakiteko: <https://www.bea-payasa.com>.

Maria Faliñaren etxeko balkoia, Elgoibarko apainena

Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu dute aurten Debabarrenean bigarren urtez. Elgoibarren, Maria Faliñak lortu du lehen saria eta Carolina Coronak bigarrena. Lehiaketan 38 lagunek parte hartu dute Elgoibarren, iaz baino hamabost lagun gehiagok. Epaimahaia lorategietan aditua den pertsona batek eta udaleko ordezkari batek osatu dute. Irabazleak 200 euro jasoko ditu, Txankakuako dendetan gatzatzeko bonoetan. Herriko bigarren saria Carolina Coronaren balkoiari eman diote. Horrek 150 euroko saria jasoko du. Eskualdeko saria Mutrikuko balkoi batek irabazi du, Maria Luisa Larrinagarenak, eta 250 euroko saria jaso du.

Errifa zenbaki saridunen berri eman dute Azkue auzokoek

Azkue auzoko jaietan errifak saldu zituzten auzotarrek, eta orain, zenbaki saridunen berri eman dute. Bi sari zozkatu zituzten. Lehenengo saria 1.642 errifa zenbakia duenarentzat izango da (Ordezko zenbakia: 3534). Bigarren saria, berriaz, 1335 zenbakiaren jabeak eramango du (Ordezkoa: 2917).

Irailaren 17an zabalduko dute Aita Agirre

Elgoibarko Udalak irailaren 17an, asteartean, zabalduko du Aita Agirre eraikina. Eraikin berrituan egongo dira aurrerantzean hainbat udal zerbitzu, hala nola: Euskara, Gazteria, Berdintasun eta Kultura sailak. Lehenengo solairuan eskainiko dituzte zerbitzu horiek. Gotzon Garate Udal Liburutegia ere aldatu dute lekuz Aita Agirrera, eta eraikin berrituaren bigarren solairuaren zati handi bat hartuko du, Kzgunearekin batera. Teilatupean, berriz, Debabe Udal Euskaltegiaren bulegoak egongo dira. Euskaltegia asteartetik aurrera zabalik egongo da. Era berean, Elgoibarko Izarrak lekualdatzea gauzatzeko bulegoak ere badauzka Aita Agirren. Horrez gain, Udal Musika Bandak ere izango du lokala Aita Agirren eta taberna ere izango du eraikinak, eta bi lokal horiek ikusteko moduan izango dira asteartetik aurrera. Hala ere, taberna ez da funtzionamenduan egongo oraindik, baina urrirako zabaltea aurreikusten du Udalak. Eraikina astelehenetik ostiralera egongo da zabalik, 9:00etatik 20:00etara. Hala ere, ordutegi hori ez da behin betikoa izango, ordutegi zabalagoa izango duelako aurrerantzean, asteburuak barne. Tabernak, esaterako, beste ordutegi zabalago bat izango du, eta herritarrek, eraikinak dituen beste instalazio batzuetara sartzeko aukera izango dute, txartel elektronikoen baten bidez, ikasketa gelara, esate baterako. Udaletik jakinarazi dute, eraikina asteartean zabaldu arren, irekiera ofiziala urria hasieran egingo dutela.

Putre batek ikusmin handia sortu zuen eguaztenean Elgoibarren



Putre batek sekulako ikusmina sortu zuen eguazten arratsaldean Olasoko industrialdean. Gosetutako itxuran jaitsi zen, txakur bati eraso egiteko ahaleginean. Hara-hona ibili zen errepidean, ikusmirara batu zen jendearen artean, momentu batzuetan erasokor ere bai. Herritarrek eman zuten abisua Udaltzaingoan, bai eta larrialdi zerbitzuetarako telefonoan ere, eta hegaztiak istripuren bat eragiteko arriskua zegoela ikusita, jaso egin zuten. Urtebetez azpiko putre osasuntsua zela jakinarazi dute batzera gerturatu zirenek, Animalien Babeserako Mankomunitateko zerbitzukoek. Elgoibarren pasatu zuen gaua hegaztiak, zainduta, eta ostegun goizean etorri ziren bila Gipuzkoako Foru Aldundiko Izadi Zaintza Zerbitzukoak. Foru Aldunditik jakinarazi dute jarraipena egingo diotela egun batzuetan, baina arazorik ez duela egiaztatuz gero, libre utziko dutela berrito. Kontrara, zerbait duela ikusiz gero, Igeldoko Arrano Etxera eramango dute, baina azken helburua libre uztea izango da.

'Emakumeak eta kirola' gaia landuko dute irailaren 16an

Emakumeak eta kirola gai hartuta jardungo dira irailaren 16an gogoetan Jabe-kuntza Tailerrean. Kultur Etxeko gelan batuko dira hausnarketarako eta Loredi Salegik gidatuko du saioa. Bi orduko saioa izango da, 18:00etan hasi eta 20:00ak bitartekoa, eta nahi duen orok parte hartu dezake, debalde. Azalpenak elebitan izango dira.

Barazki postu onenaren saria jaso dute Txillarrekoek Ordiziako azokan

Euskal Jaietako aparteko azoka egin zuten joan zen asteazkenean Ordizian, eta hainbat sari banatu zituzten. Barazki posturik onenaren saria Txillarre baserriko Pello eta Argiñe Rubio aita-alabentzat izan zen. Argiñe berak jaso zuen saria Ainhoa Jimenez Ordiziako zinegotziaren eskutik. Bigarren saria Munoa baserrikoek jaso zuten, eta hirugarren saria banatu gabe zuten epaimahaiak. Gazta Lehiaketan, berriz, bosgarren egin zuten Mausitxa gaztandegiak. Hamalau gaztagile aukeratu zituzten finalerako, eta tartean zen Mausitxa ere.





Frankismoko presoak omenduko dituzte bihar zortzi Kolunbarioan

1936ko irailaren 21ean sartu ziren tropa kolpistak Elgoibarren eta egun hura ez du ahazteko memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak. Frankistek hildakoak oroitu zituzten iaz, eta aurten, Frankismoan kartzelan edo kontzentrazio esparruetan preso izan zituztenak gogoratuko dituzte. Irailaren 21ean izango da omenaldia, Olasoko hilerrian dagoen Kolunbarioan, 11:00etan hasita. Preso egondakoan zerrenda bat osatu du Elgoibar1936 taldeak, bai eta publiko egin ere, senideen bila ari direlako ekitaldirako. Era berean, laguntza eskatu diete herritarrei, zerrenda hori osatzeko eta bide batez zerrendan jasotakoek bizitakoek gaineko informazioa biltzeko. Horretarako telefono zenbaki bat eta e-posta helbide bat jarri dituzte herritarren eskura: 605 772 285 / elgoibar1936@gmail.com

- AINARA ARGOTIA -

Preso egondakoan zerrenda

- ◆ Jeronima, Maria, Manuel eta Maria Alberdi Arrieta
- ◆ Juan Casto Alberdi
- ◆ Juan Francisco Alberdi
- ◆ Aurelio Alvarez Venga
- ◆ Miguel Jose Alberdi Agirregomezkorta
- ◆ Andres Alberdi Baskaran
- ◆ Josefina Anguera Barrutia
- ◆ Francisco Arostegi Aizpurua
- ◆ Pilar Arregi Garate
- ◆ Julio Arrillaga
- ◆ Julio Arriaga Mugertza
- ◆ Romualdo Andonegi Beristain
- ◆ Tomas Andonegi Beristain
- ◆ Jose Alberdi Agirregomezkorta
- ◆ Urbano Arriaga Alzibar
- ◆ Ildefonso Arrieta Basurto
- ◆ Valentin Arrizabalaga Txurruka
- ◆ Prudencio Arrizabalaga Mujika
- ◆ Imanol Ajuria
- ◆ Zacarias Azpiazu Kruzelegi
- ◆ Jazinto Azpiazu Kruzelegi
- ◆ Mariano Azpiazu Lauzirika
- ◆ Faustino Badiola Salegi
- ◆ Juan Barrenetxea Juaristi
- ◆ Justo Barrutia Arismendi
- ◆ Fulgencio Barrutia Aristondo
- ◆ Victoriano Barrutia Aristondo
- ◆ Pedro Bastida Zubiaurre
- ◆ Jose Ignacio Bergaretxe Aranberri
- ◆ Higinio Bernedo Azkoitia
- ◆ Victor Bernedo Zubiaurre
- ◆ Tiburcio Beristain
- ◆ Imanol Beristain Piquer
- ◆ Teodoro Carral Martinez
- ◆ Jose Cardenas Lobato
- ◆ Emeterio Compañon Perez
- ◆ Jose Churruca Zabaleta
- ◆ Leon Diaz Exposito
- ◆ Epifanio Duran Berasategi
- ◆ Juanito Elorza Juaristi
- ◆ Ladislao Elorza Zubiaurre
- ◆ Hilario Etxaniz Arregi
- ◆ Ramon Etxaniz Etxabe
- ◆ Eduardo Etxaniz
- ◆ Eustakio Etxebarria Urberuaga
- ◆ Pedro Eguren Diaz
- ◆ Pablo Eguren Diaz
- ◆ Sebastian Epelde Muguruza
- ◆ Alberto Epelde Muguruza
- ◆ Aniceta Garate Etxaniz
- ◆ Miguel Garijo Hoson
- ◆ Maria Luisa Garrido
- ◆ Dimas Gil Aulestiarte
- ◆ Eusebio Gil Aulestiarte
- ◆ Victoria Gonzalez Garate
- ◆ Ramon Gurrutxaga
- ◆ Jose Hervias Compañon
- ◆ Gregorio Hervias
- ◆ Domingo Izeta Usatorre

Bat, beste hamaikaren artean

Maria Luisa Garrido da irailaren 21eko ekitaldian omenduko dutenetako bat, 36ko gerrak tropa kolpistek jazarri zutenetako bat. Jaioberritan abandonatu egin zuen amak, eta 2 urte bete zituenean, Francisco Arostegi eta Josefina Anguera senar-emazte eibartarrek hartu zuten umeztat. Zorionak, baina, ez zion lar irau, 6 urte zituela bete-betean harrapatu zuelako gerrak, eta bonbengandik ihesi eman zituelako ondorengo urteak, amarekin, aita, gerra hasteaz batera hartu zutelako preso eta Santoñako kartzelara eraman. Bazter-



ketarik gordinena bizi izan zuen Garridok umetan, batetik, umezurtegiako umea zelako, eta bestetik, adopzioan hartu zuen ama sozialista zelako, Errepublikaren aldekoa. Propaganda banatzen ibili ohi zen Maria Luisaren ama, eta Bizkai aldera ihes egin zuen ezinbestean. Durangorantz abiatu ziren, handik Bilbora iritsi ziren, eta 1937ko ekainaren 11n Francoren tropek Bilboren kontrako erasoak jo aurretik, Bartzelonarako bidea hartu zuten ama-alabek. Errepublika zaleen gotorlekua zen Bartzelona, baina ordurako giroa gaiztotzen hasia zen han ere, eta horregatik, Espainiako Gobernuak Kataluniakoarekin batera jarritako itsasontzi bat hartu eta Frantziara ihes egitea erabaki zuten, Francoren tropek Bartzelona hartu aurretik. Aterpe batean hartu zituzten Frantzian, baina hara ere iritsi zitzaizen alde egiteko abisua eta Parisera abiatu ziren. Citroenean lan egin zuen Anguerak. Parisen harrapatu zituen Bigarren Mundu Gerrak, eta hartu zituzten preso. Argeles-sur-Merrek kontzentrazio esparrura eraman zituzten, eta direnak eta bi bizi izan zituzten han. Baina han ez zen sufrikarioa amaitu. Euskal Herrira iristea lortu zutenean ere ez zuten giro izan. Gerra galdu zutenean aldekoak izanda, hamaika umilazio jasan behar izan zituztelako.

- ◆ **Pedro Izeta Usatorre**
- ◆ **Jose Iriondo Sodupe**
- ◆ **Ramon Jimenez Etxeberria**
- ◆ **Juan Jauregi Arrieta**
- ◆ **Miren Joaristi 'Mirentxu'**
- ◆ **Josefa Osoro Mendikute**
- ◆ **Jose Juaristi Anzola**
- ◆ **Jose Juaristi Eizagirre**
- ◆ **Guillermo Juaristi Villar**
- ◆ **Martin Landa Etxeberria**
- ◆ **Jesus Lizundia Epelde**
- ◆ **Indalgencio Lopez Gomez**
- ◆ **Julio Martinez Gomez**
- ◆ **Silvino Gabilondo**
- ◆ **Ricardo Garay Arce**
- ◆ **Juan Jose Gorrotxategi Osoro**
- ◆ **Julita Gorrotxategi Osoro**
- ◆ **Ignacio Gorriti Garate**
- ◆ **Joxe Gurrutxaga Ondartza**
- ◆ **Francisco Iriarte**
- ◆ **Elias Mardaras Areta**
- ◆ **Maria Luisa Gorrotxategi Osoro**
- ◆ **Luis Gomez Ortega**
- ◆ **Lucio Ostolaza Zabaleta**
- ◆ **Jose Alberto Ondarza Alberdi**
- ◆ **Fidel Mondragon Sanchez**
- ◆ **Lorenzo Muguruza Mendikote**
- ◆ **Felix Murua Atristain**
- ◆ **Aurelio Mujika**
- ◆ **Pedro Muguruza Agirregomezkorta**
- ◆ **Santiago Osoro Barrenetxea**
- ◆ **Manuel Osoro Urretxa**
- ◆ **Carmelo Orue Mondragon**
- ◆ **Eduardo Oteiza Salaberria**
- ◆ **Francisco Oteiza Salaberria**
- ◆ **Victor Rementeria Beristain**
- ◆ **Enrique Ruiz Poveda Rodriguez**
- ◆ **Julen Sarasua**
- ◆ **Antonio Santolaya**
- ◆ **Julian Sertucha Osoro**
- ◆ **Angel Suarez Etxeberria**
- ◆ **Juan Telleria Astaburuaga**
- ◆ **Jose Urbietta**
- ◆ **Ramon Untzilla Gonzalez**
- ◆ **Francisco Unzueta Otxoa**
- ◆ **Alejandro Uria Gabilondo.**
- ◆ **Sebastian Uribe**
- ◆ **Pedro Urberoaga Intxorbe**
- ◆ **Ramon Urbietta Gurrutxaga**
- ◆ **Jose Zubiaurre Arenas**
- ◆ **Jose Zubiaurre Oñederra**
- ◆ **Jose Zubiaurre San Martin**
- ◆ **Ziriako Uriarte**
- ◆ **German Uriguen Ormaetxea**
- ◆ **Sabino Sorondo Igartua**
- ◆ **Alberran Landa Artente**
- ◆ **Vicente Sol Artozabal**
- ◆ **Segundo Zengotita Arzuaga**
- ◆ **Felix Murua Atristain**
- ◆ **Fermin Barrenetxea Bernedo**
- ◆ **Adrian Laskurain Ajubita**
- ◆ **Valentin Anton de la Fuente**



▶ **JAVIER
ARRIZABALAGA**
BERTSOLARIA

“Ez naiz sekula plaza gizona izan”

Plaza gizona ez izateko, urte asko egin ditu plazaz plaza bertsotan. Aiastia auzoko Ziarda baserrian jaio zen 1960an, eta jaiotetxeak eman dio bertsotarako izena. Estreinako plaza 16 urte eskasekin egin zuen, eta 43 bat urte joan dira ordutik. 17 urterekin irabazi zuen lehendabiziko txapelketa, Osinalde Saria, eta geroztik makina bat txapelketatan kantatu du, 1991ko Gipuzkoako Txapelketan nahikoa zela iritzi zion arte. Plazatik erretiratu berri da orain. Sanbartolomeetako Baserriar Eguna aukeratu zuen agurrerako, urte askoan bertsotarako eguna izan duena.

- AINARA ARGOITIA -

◆ 40tik gora urte egin dituzu bertsotan. Hasiera haiek oroitzen dituzu?

Bai, jakina. Mutil koxkorretan hasi nintzen bertsoak entzuten. Txapelketetako bertsoak-eta entzuten nituen irratiz, eta azkeneko, etorri egiten da hori. 14-15 bat urterekin hasi nintzen lagun artean-eta bertsoak botatzen, eta sanmigel batzuetan, 16 urte neuzkala, Aittola eta Larrañaga etorri ziren auzora kantura. Ordurako jendeak bazekien bertso banaka batzuk botatzen nituela eta berotu ninduten kanturako. Hiru-lau bertso izan ziren gutxira, baina huraxe izan zen plazan nire lehenengo saioa. Osterantzean, gure etxean ez da aurrez bertsolaririk izan. Ber-

tsozaletasuna, bai, baina bertsolaririk ez.

◆ Eta 16 bat urteko zinela eman zenuen estrainekoz txapelketarako izena ere.

Bai, 17 urte bete gabe nituela Osinalde sariketara joan nintzen, Gabirira, eta handik bi urtera bueltatu nintzen berriro, eta irabazi! Osinalde Sariak orain ere bai, baina lehen ere entzute handia zuen bertsolari gazteen artean, eta hura irabazi izanak plaza gehiago egiteko aukera ekarri zidan. Ordurako hasita nengo plaza batzuk egiten, dena den. Jose Luis Mugartza *Elgetzu*, Jexux Iribar *Olalde* eta Jose Antonio Solozabal izaten nituen gehienetan kantulagun eta akordatzen naiz auzoko lagunek eramaten nindutela

plazetara, nik ez neukalako autorik, ezta gidabaimenik ere. Ni kantuan hasteak bertsotarako afizioa ere handitu zuen hemen, auzoan. Elkartean ere denak ibiltzen ginen bertsotan orduan, eta denek bukatzen zuten bertsoa, neurrian beti sartu ez arren. Osinalde Saria irabazi ostean hasi nintzen Angel Mari Peñagarikanorekin, Millan Telleriarekin, Mikel Mendizabalekin eta abarrekin kantuan plazan.

◆ Non sentitu izan zara zu gusturago bertsotan?

Lagunartean. Ez naiz sekula plaza gizona izan. Barrutik beti sufritu izan dut bertsotan, eta zer esanik ez txapelketetan.



“Bertsolari onak asko dira, baina ni beti izan naiz Jon Lopategiren oso zalea”

tzen. Mañukorta eta biok joan ginen elkarrekin Elgoibartik, eta *Mañuk* bertso onenaren saria jaso zuen, eta nik bertsolari gazteenarena. Akordatzen naiz sanmigelak zirela eta han bueltatu ginela biok auzora, Idiazabalen egun hartan banatu zituzten kopa bakar biak hartuta, pozik. Eta Mungiako Lauaxeta Sarian ere aritu nintzen birritan-edo bertsotan. Gogoan daukat, Mungian, Ernest Alkhatek txapela jantzi zuen urtean, ganadutarako kamioian jarri zutela finalean kartzela. Plazatik bide-saila oinez egin eta kamioian sartu gintuzten bertsolariok. Horrelakorik ez duzu gaur entzungo! Arrazoa duzu, bai: plaza gizona ez izateko txapelketa asko pasatu ditut.

♦ Eta apartatu zinen gero txapelketetik. Zergatik?

Bai, eta eskerrak azkar laga nion! Osasuna ere galdu nuen nik txapelketetan. 1991ko Gipuzkoako Txapelketa izan zen nire azkenekoa. Madalensoro frontoian izan zen saioa, Oiartzunen, eta izugarri sufritu nuen. Kartzelako gaian, gainera, azkena kantatzea egokitu zitzaidan, eta akordatzen naiz urduri baino urduriago egon nintzela, noiz nire txanda allegatuko. Peñagarikanok jantzi zuen txapela eta nik argi ikusi nuen nire burua kontu haietatik kanpo. Gerora, taldeko beste txapelketa batzuetan ibili nintzen, baina bakarka huraxe izan zen nire azkenekoa. Taldekako batean Juanito Loiola mendaroarekin eta Mañukortarekin hirukoa osatuta lehiatu nintzen, eta laugarren egin genuen. Beste behin, Germanekin [Meabebasterretxea] eta [Juan Mari] Narbaizarekin batera aritu nintzen taldean, Elgoibar ordezkatzan. Azpeitiarren kontra galdu genuen.

♦ Bertsotan zeintzuk izan dira zure erre-fente nagusiak?

Bertsolari onak asko dira, baina ni beti

izan naiz Jon Lopategiren oso zalea. Jon Azpillagarekin eta Jon Mugartegirekin ere saio asko egindakoa naiz 90eko hamarkadan eta haiek ere beti izan ditut oso gustuko, baina Lopategiren bertsokera hain zen konpletoa... Jonek ez zuen sekula dudarik egiten bertsotan. Gozamen hutsa zen kantuan entzutea, bai eta ohol-tza gainean ikustea ere. Garai zailak ziren haiek edozertarako, baina seguru aritzen zen beti Jon eta sekulako konfiantza ematen zuen bertsotan. Gozatu egiten zuten bertsotan haiek, eta gozatzen genuen guk haien atzetik plazaz plaza. Asko zor diegu guk Lopategiri eta Azpillagari. Haiek izan ziren gure eskola, bestela sekula ez naizelako ni bertso-eskola batean ibili. Ni bertsotan hasi eta geroxeagoko kontuak izan ziren bertso-eskolak, Sarasua anaien, Eguzkitzeren eta beste hainbaten hasierako urteak. Tokatu izan nintzen ni ere bertsolari on haiekin txapelketaren baten edo birritan.

♦ ‘Entzuleontzat plazako lanak / nahiz ditudan amaitu / oroitzapenik maitekorrenak / bihotzean gordeko ditut’ kantatu zenuen azken agurrean. Zer eman dizu zuri bertsopak?

Lagun asko, ezagun asko. Ez naiz ni urtean plaza asko egin dituenetakoa izan sekula, eta plazan kantatzeari beti izan diot errespetu handia. 1980tik 85. urtera bitartean egin nituen plaza gehien, baina bestela, behin txapelketetara joateari laga nionetik, urtean dozena bat saio egingo nituen. Nahi edo ez, txapelketak laguntzen du norbere burua hobetzen, beste neke bat hartzen delako prestatzen ere, baina presio hori gabe lasaitu egiten da bat. Edozelan ere, 40 urtean auzo eta herri asko ezagutu ditut kantuari esker. Gure inguru hau ezagutzeko era ona da bertsolaria-rena. Oroitzapen on asko gordetzen ditut bertsotan egindako urteetatik. Akordatzen naiz Iruñeko unibertsitate-kan-tura deitu ninduten egunaz adibidez. Amuriza, Lopategi, Peñagarikano eta laurok joan ginen, eta niretzat maila hartako hiru bertsolarirekin hara joatea handia izan zen. Eskas-eskasa ere ez

♦ Plaza gizona ez izateko, ez zara ba txapelketetan ibili gabea!

1982an aurkeztu nintzen estreinakoz Euskal Herriko Txapelketara, Xabier Amurizak bigarren txapela jantzi zuen hartara, eta 1985ean itzuli nintzen. Sebastian Lizasok jantzi zuen txapela orduko hartan. Hala ere, lehen fasean kantatu nuen nik bakarrik. Azkenekoz, Gipuzkoako Txapelketan kantatu nuen, 1991n, eta izugarri sufritu nuen. 80ko hamarkadan ibili nintzen, bai, txapelketetan. Zarauzko Lizardi Sarian hiru bat aldiz parte hartu nuen, eta urte batean, gitarra bat irabazi nuen, hirugarren eginda. Sekula ez nuen jol!

Artxanberri eta Pello Errota Sarian ere parte hartu izan nuen Zaldibin. Egun bakarreko txapelketa izaten zen, eta plazan egiten zen. Hogeitaka bertsolari hasten ginen kantuan goizean eta onenak saikaltzen ziren arratsalderako. Hiru alditan parte hartu nuen, eta hiruretan saikaltu nintzen behintzat arratsalderako. Gustukua nuen txapelketa hura, bai. Idiazabalgo Zepai Sarian ere parte hartu nuen behin, eta gazteenaren sariarekin etxeratu nin-

nintzela sentitu nuen.

♦ **Erretiroa hartzeko adinera iritsi aurretik erretiratu zara plazaatik. Ez zen ba erabaki erraza izango, ala?**

Beti izan dut garbi ez nintzela azken-azkenera arte plazan ibiliko. Garbi neukan kantuan behar baino gehiago sufritzen hasten nintzen egunean, bertsotan gozatzeari lagatzen nioanean, laga egingo nuela. Erabakia ez da bat-batean hartutakoa izan. Azkeneko bi-hiru urtean makina bat buelta eman dizkiot horri, eta pozik nago hartutako erabakiarekin. Urte asko izan dira, eta burua nekatzen da bestelako nekerik hartu beharrik gabe ere. Orain, beste modu batean gozatu nahi dut bertsosaz. Elgoibarren, kantuan egin behar horregatik, lotura puntu batekin bizi izan ditut bizi osoan San Bartolome azoka eguna eta Gabon Zahar eguna eta datorren urtean lasai-lasai joango naiz, ardua hori gabe, orduak zaindu beharrik gabe.

♦ **Bertsotan egiteko eguna izan duzu urteetan sanbartolomeetako Baserritar Eguna, eta euren esker ona agertu dizute aurten Udalak eta Kalamua Elkar-tekoeak. Zer izan zen zuretzat omenaldi hura?**

Oso egun ederra izan zen. Niretzat egun berezia izan da beti Baserritar Eguna, baina lotura halako bat ere izan da, herritarren aurrean bertsotan ondo egin nahi horregatik. Eta bai, berezia izan da aurtengoa, eta nire esker ona agertu nahi diet denei. Gertukoaren aurrean laga nahi nuen eta aukera hobetik nekez topatuko nuen. Agustín [Irusta] jardun zen aurkezle lanetan, nire ume-tako laguna, gizon bertsozalea. Askok ibili gara gu biok elkarrekin eta lagun handia dut. Osinalde Saria irabazi nuen ere, hantxe zen Agustín, Gabirri. Erabakia neukan oholtzara igoko nintzen azkeneko aldia izango zela Baserritar Egunekoa, eta zirrara bereziz bizi izan nuen eguna, azken batean oroitzapen asko etortzen direlako halakotan burura. Urduri nengoen, baina aldi berean, lasai ere bai, halako bake

moduko bat sentitzen nuelako barruan.

♦ **Eta Aiastian ba al dator Ziardaren erreleboa hartuko duenik?**

Ez, nik ez dut ikusten behintzat. Elgoibarren bertso eskolako irakasle izateko ere proposatu zidaten, baina ezetza eman nuen. Neuk behar dut irakaslea eta zer irakatsiko diet ba nik!

♦ **40 urtean asko aldatuko zen bertso-larritza, baina aldatetaren bat aipatzekotan zer nabarmenduko zenuke?**

Gaur erabiltzen diren gaiak 80ko hamarkada aurreko txapelketetan ez ziren erabiltzen, askok ez litzuketelako ulertu ere egingo orduan. Sasoi hartan ibiltzen ziren gaietan jantzita egongo zen orduan ere bertsolaria, baina gaur, gauza guztiei buruz jakin behar du kantura irteten denak. Baina gaietan bakarrik ez; erimetan, doinuetan... gaur askoz prestatuago dago bertsolaria, eta hori eskolak ekarri du. Izugarritzko lana egiten dute bertsolariek ikuspuntu berriak eta doinu berriak sortzen.

♦ **Zer irizten diozu gure herriko bertso eskaintzari?**

Elgoibarko Izarraren Eguberritako saioa, Elgoibarko Izarrak berak aurten estreinakoz antolatu duen koplaldixa, santa eskea... aukera badaukagu, eta ona. Koplaldixa egin zen egunean ni kanpoan nintzen eta ezin izan nuen joan, baina gustura zeuden egon zirenak. Santa esker ere dagokion egunean irteten gara Elgoibarko Izarrarekin eta poza ematen dit niri horrek.

♦ **Zortzi bat erretratu dituzu horman esekita. 40 urteko ibilbide baterako ez dira horrenbeste. Noizkoak dira, eta zerk egiten ditu hauek horren berezi?**

Azpillagari Elgoibarren egin zitzaion omenaldikoak dira ertz horretako biak. Maisua izan genuen guk Azpillaga, eta Elgoibarren egin zitzaion omenaldikoak dira biak. Berezia izan zen maisuari kantatzea. Etxeginaren omenaldikoa da beste bat. Santa eskeko maisua izan genuen Elgoibarren Etxegina eta sona handia eman zion gure herriari. Marino Lejarreta txirindulariari egin zioten omenaldikoa da beste hori. Marinoren zale amorratua nintzen eta Amurizarekin ba-

tera bertsotan egiteko deitu zidatenean sekulako poza hartu nuen. Ezagutuko duzu beste horko hori, lekua behintzat. Bilboko Plaza Berria da. Bilbo beti da handia eta Plaza Berriko balkoi batetik bertsotan egiteko aukera izatea beti izango da berezia. Eta beste horko hori Germanen [Meabebasterretxea] ezkontza egunekoa da, eta azpikoa berarekin egindako saio batekoa. Azkeneko 25 urteotan asko ibili naiz ni Germanekin kantuan, bereziki Bizkaian, eta lagun handia dut. Eta, jakina, lagunaren ezkontza eguna ere berezia delako dago argazki hori hor. Eta azkeneko hori santa eskekoa da. Makina bat urtean ibili naiz santa eskean, eta oso oroitzapen onak dauzkut. Elgoibarko Izarrarekin hasi aurretik, auzoan bertan, Deban eta Mallabian ibilitakoa naiz Santa Ageda bezperaz kantuan. Eta santa eskea aipatuta, ez nuke [Juan Mari] Areitio ahaztu nahi, sarri ibili naizelako harekin kantuan. Makina bat plaza egin ditugu elkarrekin Bizkaia aldean. Berrizen, esaterako, hamabi bat urtean kantatuko genuen biok San Pedro Txiki auzoan, hutsik egin gabe.

♦ **Etorriko da otsailaren 4a berriro ere. Ikusiko al zaitugu santa eskean?**

Bai, bai, badaukat itxaropena. Deitzen badidate, bai behintzat.

♦ **Bertsolari batek uzten al dio noizbait kantatzeari?**

Kantatu beharra suertatzen bada, kantatuko dugu geuk ere lagunartean eta mahai bueltaren batean, baina hori beste kontu bat da. Giro horretan errazago egiten da bertsotan; etorri egiten da bertsoa.

♦ **Kantatuko al zenuke agur bat gure irakurleentzat?**

Herrian bada astekari bat euskara hutsez egina bere albiste eta argazki denontzako atsegina irakurleak zaretenontzat besarkadarik haundina aurrerantzean ere mantendu hizkuntza zaintzeko grina zuek ezean alferrik baita egiten den ahalegina.



Felicidad Martin Hidalgo

2019ko abuztuaren 2an hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Trena hartu zenuen maitearekin
eta bost seme-alaba izanda
egin zenuten aurrera elkarrekin.
Beti izango zaitugu gogoan, irribarretsu eta goxo.***

Etxekoak




II. URTEURRENA

Isaac Ramos Lopez

2017ko irailaren 12an hil zen, 66 urte zituela.

***Joan zinen gu hemen utzita,
baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.***



III. URTEURRENA

Lucia Larrañaga Idigoras

2016ko abuztuaren 14an hil zen, 60 urte zituela.

Izan zarenagatik, erakutsi zenigun guztiagatik, beti zaitugu gogoan!

Maite zaituzten etxekoak




III. URTEURRENA

Jesus Ansola Arana

"Txanbolin"

2016ko irailaren 11n hil zen, 78 urte zituela.
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
irailaren 14an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliza-parrokian. Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***



'Erroma Euskal Herrian' zikloko azken hitzaldia irailaren 18an izango da

Luis Mari Zaldua hizkuntzan eta hizkuntzalaritzan doktoreak itxiko du *Erroma Euskal Herrian* zikloa datorren eguaztenean. *Euskalduntze berantiarra, egia ala gezurra* izeneko hitzaldia emango du, eta teoria honen bueltan dauden hainbat kontu argitzen saiatuko da. Zalduak, hasteko, euskalduntze berantiarraren teoria noizkoa den eta zertan datzan azalduko du. Gero, epigrafiaren eta toponimiaren arloko zenbait datutan oinarrituta, aldeko eta kontrako argudioak azalduko ditu, jendeak oinarritzko informazioa jaso eta bakoitzak bere iritzia osa dezan. Luis Mari Zaldua (Urnieta, 1965) Euskal Filologian lizentziaduna eta Hizkuntzan eta Hizkuntzalaritzan doktorea da. Euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko onomastika batzordeko kidea ere bada. Hainbat liburu, artikulua eta mapa argitaratu ditu.

Erroma Euskal Herrian zikloa Elgoibarko Izarrak antolatu du, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, eta irailaren 18ko hitzaldia izango da zikloko azkena. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



Euskaltegian izena emateko epea zabalik, Mendaron

Euskara eskolak Mendaron bertan jasotzeko lankidetzari hasi dute Mendaroko Udalak eta Elgoibarko AEK euskaltegiak, baina horretarako gutxienez zortzi ikasleko taldea osatu behar dute. Interesatuak irailaren 18rako eman behar dute izena Mendaroko udal-etxean. Informazio gehiagorako kultura@mendaro.eus helbidera idatzi daiteke.

Kintoen Eguna antolatzeko bilera egingo dute, gaur

Kinto-ospakizunen bigarren jaialdia antolatu dute urriaren 26rako, baina aurtengoari "ukitu berezia" eman nahi diote antolatzaileek. Kinto guztiek parte hartzeko moduko ekintzaren bat antolatu nahi dute, eta horretarako ideiak biltzeko bilera egingo dute gaur arratsaldean. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bilerara kinto bakoitzeko ordezkari bat joanda nahikoa dela zehaztu dute.

Izena emateko epea zabalik, Elgoibarko euskaltegietan

Euskara ikasteko interesa dutenek zabalik daukate izena emateko epea Elgoibarko euskaltegietan. Udal Euskaltegian izena emateko 943 742 731 telefonora deitu edo udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus helbidera idatzi daiteke. AEKn izena emateko, berriz, 607 601 423 telefonora deitu edo elgoibar@ae.eus helbidera idatzi behar da. Dirulaguntza eta beka sistemari buruzko informazioa euskaltegietan edo Udaleko Euskara Sailean eskuratu daiteke (943 744 366).

Giro onean joan dira San Antolin jaiak



San Antolin jaiak ospatu zituzten asteburuan Arriaga auzoan. Txapel eta oliba hezurren txapelketak eman ziren jaiari hasiera, eta urtero bezala, jende askok hartu zuen parte. 55 lagunek bota zuten txapela, 33 gizonezkoak eta 22 emakumezkoak. Gizonezkoetan Ander Osorok irabazi zuen 18,17 metrora jaurtita, eta emakumezkoetan Rosa Mari Salegi izan zen onena, txapela 14,30 metroko distantziara botata. Oliba hezur jaurtiketan, berriz, Aneitz Arrona izan zen onena emakumezkoetan (9,10 metro) eta gizonezkoetan Asier Odriozolak irabazi zuen, (13,06 metro). Iluntzean txiste afaria egin zuten, eta zapatuan umeentzako jolasak, tortilla txapelketa eta dantzaldia izan ziren, besteak beste.

Lau film emango ditu Ongarrik, Iñaki Agirre zikloaren barruan



Donostiako Zinemaldiaren harira, zine ziklo berezia antolatu du aurten ere Ongarri zineklubak. Aurten, gainera, bereziagoa izango da. Izan ere, otsailean hil zen Iñaki Agirreren izena jarri baitiote zikloari. Agirre izan zen Ongarri zineklubaren sortzaileetako bat, eta zinema zuen pasio. Haren oroimenez antolatu dute aurtengo zikloa, eta lau film emango dituzte, irailaren 19tik 30era bitartean: *Cafarnaum*, *Un asunto de familia*, *Visión* eta *Sombra*. Egun eta ordu zehatzak agendan argitaratuko ditugu.

Pedro Luis Ajuriagerraren argazki erakusketa zabalduko dute gaur

Pedro Luis Ajuriagerra (Muskiz, 1974) argazkilararen lanak jarriko ditu ikusgai Ongarri Argazki Taldeak Kultur Etxeko erakusketa gelan, gaurtik hasita. 2011n hasi zen Ajuriagerra argazkigintzan, eta ordutik kirol argazkilaritzan espezializatu da batez ere. Urte hauetan zehar hainbat sari eskuratu ditu, bai Euskal Herrian, eta bai Espainian eta nazioartean ere. Elgoibarraren ere ezaguna da Ajuriagerra, Kirol Patronatuak antolatzen duen kirol argazkien lehiaketan parte hartu izanagatik. Irailaren 28ra arte egongo dira ikusgai bere lanak.



Moxal eta Crudo Pimento taldeen kontzertuak antolatu ditu Sinuösek Sotoko Hotsak zikloaren barruan

Sotoko Hotsak zikloaren barruan, bi kontzertu antolatu ditu Sinuösek datorren asterako: Ostegunean Moxal taldeak emango du kontzertua 22:30ean hasita, eta barikuan, berriz, Crudo Pimento taldearen txanda izango da, 23:00etatik aurrera. Moxal taldea Gernikatik dator. Hannot Mintegia musikari eta ekoizleak koordinatutako proiektua da. Audience taldea utzi eta gero, *Zaldikatu* lana kaleratu du bakarka. Ingurunea eta bere burua eraikitzea maite du, gertutasunetik eta entzute "basati" batekin. Crudo Pimento taldea, aldiz, Murtziatik dator. Inma Gomez eta Raul Frutosek osatzen dute taldea, eta ez da ohiko musika talde bat. Beraiek sortzen dituzte musika instrumentuak, eta mota askotako objektuak erabiltzen dituzte musika egiteko, piper pote bat edota sokadun makila bat esaterako.





Anaitasunako nesken eta mutilen taldeak nagusi 'Elgoibar Europako Kirolaren Herria' eskubaloitxapelketan

Kadete mailako hamar taldek jokatu zuten Elgoibar Europako Kirolaren Herria 2019 eskubaloitxapelketa, aurreko asteburuan, IMH eta Olaizaga kiroldegietan. Nesken zein mutilen txapelketetan Iruñeko Anaitasuna taldea gailendu zen. Nesken arteko lehia zazpi puntu lortu zituzten nafarrek, jokaturako lau partidetan. Aiala Zarautz taldeak Anaitasunak adina puntu lortu zituen arren, egindako eta jasotako golen aldea hobea izategatik lortu zuten garaipena nafarrek. Castro Urdiales taldea sailkatu zen hirugarren, Errotabari laugarren eta Sanloko neskentzat izan da bosgarren postua. Mutilen arteko lehia ere BM Anaitasunak lortu zuen garaipena, jokaturako lau partidak irabazteaz gainera +72ko aldeko aldea eskuratu zuten sartutako eta egindako goletan. Zumaiako Pulpo sailkatu zen bigarren postuan, Sanloko mutilak lortu zuten hirugarren postua, Zarautzek laugarrena eta Castro Urdialesek bosgarrena. Txapelketa honen inguruan giro paregabea bizi izan dutela nabarmendu dute Sanlo kirol taldeko arduradunek, eta txapelketan parte hartu duten lagun guztiei eskerrak eman dizkiete: "Taldeen artean izan den errespetu giroa, kiroltasuna eta jokalaria zein zaleek kantuan zein kantzatik kanpo uneoro erakutsi duten konpromisoa nabarmentzekoak izan dira".

Zabalik dago Sanloren garagardo azoka



SanloBeer garagardo festa antolatu du Sanlo eskubaloitxapelketen taldeak, zazpigarren urtez. Atzo, hilak 12, egin zuten inaugurazio ekitaldia Maalan ipini duten karpan. Jan-edanaz gainera, zuzeneko musika emanaldiek, bingoak edo dantzaldiek giroa eman dute garagardo azoka, domekara bitartean. Honako garagardoak salduko dituzte azokan: Keler, Free Damm, Brooklyn Brewery, Bock Damm, Oro Bilbao, Estrella Damm, Radberger, Damm Lemon, Malquerida, eta Pabst Blue Ribbon. Gainera, egunero ukondoa, saltxitak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak eskainiko dituztela jakinarazi dute. Azken egunean, domekan, paella erraldoia prestatuko dute.

Aurten ere goi mailako xakelariak eman dute izena Nazioarteko Danobat Irekian

Irailaren 21ean eta 22an jokatu da Nazioarteko Danobat Irekian 55 xakelari daude izena emanda, oraingoz. Elgoibarko Xake Taldetik adituzera eman dutenez, irailaren 19ra arte eman daiteke izena. Interesatuak honako helbidera idatzi behar dute izena emateko: Elgoibarchess@gmail.com. Adin guztietako xakelariak dago irekia txapelketa, afizionatu zein profesionalentzat. Hala, xakelari afizionatuek nazioarteko xake maisuen aurka jokatzeko aukera izango dute, horixe baita txapelketa honen berezitasunetako bat. Antolatzaileek jakinarazi dutenez goi mailako parte-hartzea izango du bigarren edizioak ere. Armeniako Karen Grigoryan eta iazko txapelduna, Jaime Santos Latasa, dira faboritoetako bi. FIDEn (Nazioarteko Xake Federakuntza) sailkapenean munduko 237. postuan dago Grigoryan (ondoko argazkian), 24 urteko armeniarra, 2601 elo puntuekin. "Abenduan Elgoibarren jokatzeko Nazioarteko Xake Txapelketara etortzen diren xakelari gutxiak halako elo puntuazioa dauka", nabarmendu dute antolatzaileek.



Sanloko harribitxiak talde onenen jomugan



Nahia Legorburu



Julen Urruzola



Yune Bermejo




Ibai Perez

Sanloko zenbait jokalarik goragoko mailetan diharduten taldeen deia jaso dute uda honetan. Horixe da Julen Urruzola, Nahia Legorburu, Yune Bermejo eta Ibai Perez de Albenizen kasua. Sanlo kirol taldea Gipuzkoako erreferenteetako bat da eskubaloian, bai txapelketak antolatzeko erakutsi duen gaitasunagatik, bai eta Sanloko taldeek adin eta kategoria desberdinetako txapelketetan eman duten mailagatik ere. Eta, azkenaldian, Sanlon hasi eta hezitako hainbat jokalarik gazte puntako eskubaloit taldeen arreta erakartzen ari dira. Julen Urruzola Pagazartundua (Elgoibar, 2002) jokalaria da etorkizun handia izan dezaketen jokalarietako bat. Irungo Bidasoa taldearen deia jaso du 17 urteko lehen lerroko jokalaririk. Asobal Ligako egungo txapelkunordearen entrenamendu saioetan parte hartuko du denboraldi honetan, beste zazpi jokalarik gazterekin batera, alabaina, lehiatu Alcorta Forging Group Sanloko senior taldearekin eta Deca taldearekin lehiatuko da. Lagunarteko partidaren bat edo beste ere jokatuko du Bidasoarekin. San Bartolome Eskubaloit txapelketan izan zuten horretarako aukera, Olaizaga kiroldegian Vestas Alarcos taldearen aurka jokatuz partidan. Nahia Legorburu Goñi 18 urteko jokalarik gazteak ere ibilbide berria hasiko du Nafarroan. Sanlo EKT eta Atarrabiako Beti Onak kirol taldeak adostasun batera ailegatu dira Legorburuk hurrengo lau denboraldiak Lagun Onak taldean jokatuz, lagata. Atarrabiako taldeak Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatuko du aurten. Antzerako akordioa lotu dute Sanlok eta Zarauzko Amenabar taldeek, Ibai Perez de Albeniz Salegi jokalariarekin. Honek Sanlok utzita jokatuko du Zarautzen, datozen bi denboraldietan. Zarautzko taldeak Zilarrezko Ohorezko Mailan dihardu. Perez de Albenizek 19 urte ditu, eta Sanloko harrobian hezi da. Azkenik, Sanlo eta Bera Bera taldea adostasun batera heldu dira Yune Bermejo Segovia jokalaririk, utzita, Donostiko taldean jokatuko ditu azken hiru denboraldiak. Bermejok Euskal Ligan lehiatzen den Bera Berako senior taldean jokatuko du.

Alvaro Gimenez mendaroarra munduko txapelkun trialeko bizikletan

Trialeko bizikletan munduko txapelketa irabazi du Alvaro Gimenez mendaroarrak bere adin tartean, 9 eta 10 urtekoen artean. Poloniako Wadowice hirian jokatuz Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak antolatutako txapelketa: 2019 UCI Trials World Youth Games. Abuztuan jokatuz txapelketan 16 urtez azpiko 158 trialsin gidarik hartu zuten parte, hamasei herrialdeetakoak, sei kategoriatan banatuta. Alvaro Gimenez Poussins mailan lehiatu zen (9 eta 10 urte). Hainbat herrialdeetako 31 ume lehiatu ziren eta Mendaroko mutila izan zen guztietan onena. Wadowice hiriko Joan Paulo II.a aita santua plazan prestatu zuten ibilbidea gainditu behar zuten parte hartzaileek. Finalerdietan akats bakar bat ere egin gabe gainditu zuten bakarra izan zen Alvaro Gimenez, eta 600 puntu eskuratuta sailkatu zen finalerako. Hamabi lagunek jokatuz zuten finala, eta Gimenezek beste erakustaldi bat eman zuten finalean ere, akatsik egin gabe osatu baitzituen ibilbideari eman beharreko bi itzuliak. Hala, 600 puntu eskuratuta irabazi zuten urrea mendaroarrak. Jiri Shenal txekiarrak sailkatu zen bigarren postuan, 590 punturekin eta Adam Szlaga poloniarrek egin zuten hirugarren 540 punturekin.



LANA.....

Eskeraerak

Erizain laguntzaille lanetarako prest nago. Titulua daukat. Adinekoak ere zainduko nituzke. Esperientzia.
☎ 608 406 751

Ingeles eskolak ematen ditut, etxez etxe. Ingeles titulua daukat.
☎ 680 319 002

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka. Erizain lanetan esperientzia daukat.
☎ 633 496 455

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Zaintza titulua eta elikagaiak manipulatzeko titulua ditut.
☎ 602 355 271

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 611 306 391

Adinekoak zainduko nituzke. Gauzez ere bai, ospitalean zein etxean. Titulua daukat. ☎ 602 490 595

Adinekoak zainduko nituzke, goizez. Asteburuetan eta gauetan lan egiteko prest nago. ☎ 632 229 972

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia handia daukat.
☎ 617 571 210

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 612 455 854

Adinekoak zainduko nituzke. Asteburuetan, gauzez, edo etxeko langile moduan ere bai. Malgutasun osoa.
☎ 631 980 531

Adinekoak zainduko nituzke, gauzez edo etxeko langile moduan.
☎ 603 346 659

Adinekoak zainduko nituzke. Asteburuetan lan egiteko prest. Berehala hasteko moduan nago eta esperientzia handia daukat. ☎ 632 344 327

Etxeak garbitzen edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan.
☎ 632 642 320

Umeak eta adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala lanean hasteko prest.
☎ 602 850 826

Adinekoak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko prest nago.
☎ 632 786 847

Adinekoak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko prest nago.
☎ 631 736 770

LHko eta DBHko eskolak eta Batxilergoko ingeles eskolak ematen ditut.
☎ 630 055 077 / 666 667 183

Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago.
☎ 632 630 483

Eskaintzak

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Bidali curriculuma inmabima@gmail.com helbidera.

ETXEBIZITZAK.....

Elgoibarko bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Iggogailua beharrezkoa, eta ahal dela, erdigunean.
☎ 617 562 086

BESTELAKOAK.....

Covadonga eta Ribadesellara txangoa antolatu dute irailaren 21erako. 45 euro balio ditu. Interesatuek deitu lehen bailehen izena emateko.
☎ 630 055 077 / 666 667 183

Haur jaioberri batentzako kapotadun aulkia eta sehaska behar ditugu.
☎ 660 511 781 (Elena)



VII. URTEURRENA

Jose Mari Aramberri Urrutia

2012ko irailaren 13an hil zen. Haren oroimenez VII.urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailaren 14an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkateak Elkarlanean
Euzko Alkateak Elkarlanean



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure etxepeko bizilagun batzuk balkoiak itxi nahi dituzte, edo kristalezko itxitura jarri, baina etxejabe batzuk ez daude erabaki horrekin konforme. Balkoiak ixtea nahi duten gehienak kristalezko itxituraren aldekoak dira, baina oraindik ez dute ezer erabaki. Jakin nahi nuke balkoiak ixtea posible den.

Balkoia etxebizitza bakoitzaren azaleraren parte izan arren, fatxadetan kokatuta dago, eta elementu komun izaera dauka, beraz, etxejabeak ezin du bere erabakiz balkoia itxi, komunitatearen eta kuoten 3/5enak adosten ez badute behintzat, eta betiere, administrazioaren aurretiazko baimenarekin. Posible da aurrez ere antzerako itxituraren bat egin izana eta komunitateak ez esan izana ados ez dagoela, edo etxejabe kalteuren batek ez azaldu izana bere kexa.

Komunitatearen adostasuna eta administrazioaren baimena lortu ondoren, komunitateak berak erabakiko du zein itxitura mota erabiliko duen. Etorkizunean beste etxejabe batzuek egin ditzaketean itxiturekin batasuna izan beharko dute.


Ondorioa: Legea aipatutako bidetik joan ohi da gehienetan, baina auzirene batek baimendu izan du kristal mugikorren bidez ixtea balkoia, lehendik dagoen estrukturan jarrita, eraikinaren estetikari kalterik egiten ez diola arrazoituta.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Sara!** Egund polita pasatu deizula gaurkua! Etxeko guztion, eta bereziki, Martinen partez, muxu potolo bat.



Zorionak, **Danel!** 7 urtel Ondo pasatu! Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Izaro, Oihan eta Jareren partez.



Zorionak, **Beñat,** zure 12. urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Gaurazi,** astelehenean 8 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Udane eta Beñaten partez.



Zorionak, **Ekhi,** zure bigarren urtebetetzean. Etxeko denon partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak familiako guztion partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **Ihart eta Maule,** 10 eta 3 urte bete dituzelako. Familiako denon partez.



Zorionak **Xuban!** Pila bat maite zaitugu. Etxekoen partez.



Zorionak, **Danel eta Lea,** zuen urtebetetzean. Etxeko guztion partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Aurrematrikula epea zabalik 2019-2020

INGELESEKO AKADEMIA

- Ingeles errefortzuak
- Cambridge azterketak
- Talde txikiak

Plazak libre! Gorde zure lekua!

667 261 248

IKASGO
ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademialgoibar@gmail.com





- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atsedun gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

13 BARIKUA

18:00 Odol ateratzeak. Elgoibarko odol emaileen lokalean.

18:30 Argazki erakusketa. Ongarri Argazki Taldeak antolatuta, Pedro Luis Ajuriagerrak *Feel the sport* erakusketa inauguratuko du. Hilaren 28ra arte egongo da ikusgai, Kultur etxeko erakusketa gelan.

14 ZAPATUA

16:00 Bilbon egingo den 47ak herrira manifestaziorako autobusa. Txan-kakoako zubitik. Tiketak erosteko: Jai Alai, Lanbroa eta Iturri.

21:00 Zinea, Mendaroko frontoian. *Campeones*.

16 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabekuntza tailerra: *Emakumeak eta kirola*. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

17 MARTITZENA

19:00 Isiltasun Eskolako en hausnarketak saioa. Kultur Etxeko sotoan.

19 EGUENA

22:30 Sotoko Hotsak. Moxal taldearen kontzertua. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

20 BARIKUA

19:00 Nahaste Borraste. Kimetz elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

21:30 Bideo Foruma: *Vuelta a casa de mi madre*. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Sotoko Hotsak. Crudo Pimento taldearen kontzertua. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

Zinea (Herriko Antzokian) Iñaki Agirre Zinemaldia



'Cafarnaüm'

19 eguena: 21:30

20 barikua: 21:30

SANLOBEER FESTA

Irailak 13, 14 eta 15

IRAILAK 13, BARIKUA

18:00 Karparen irekiera.

19:00-21:00 Pintxo poteoa (gambak).

23:00-01:00 Musika zuzenean Melissa And The Jacks taldearekin.

00:00 Bingo solidarioa.

01:00 Dantzaldia.

IRAILAK 14, ZAPATUA

12:00 Karparen irekiera.

12:00-14:30 Pintxo poteoa (mejiloiak tomatearekin).

23:00-01:00 Musika zuzenean Melissa And The Jacks taldearekin.

00:00 Bingo solidarioa.

01:00 Dantzaldia.

IRAILAK 15, DOMEKA

12:00 Karparen irekiera.

14:00 Paella jan erraldoia.

17:30 Festaren amaiera.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

13 BARIKUA	14 ZAPATUA	15 DOMEKA	16 ASTELEHENA	17 MARTITZENA	18 EGUAZTENA	19 EGUENA	20 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranao
 Guillermo Torres



Elgoibar
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 067 337
 Astelehenerik ostiratera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopindegi zerbitzua daukagu.
 Deitu ordus hartan.

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2019an jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik,
 irailaren 16tik 27ra, azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus
 943 744441




IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera **irailaren 16an, 18:00etan**



Euskararekin Match!

Egin gurekin bat

19/20
Ikasturtea
Matrikula zabalik

www.udaleuskaltegiak.eus



Matrikula epea zabalik
 Plazo de matriculación abierto

ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30
 DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
 Alka Agirre, 3 - 3.a
943 742 731
 udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

Lekualdaketa
 irailaren 17tik aurrera eraikin berrian!

Euskararekin Match!

Egin gurekin bat

IKASTAROAK

- 16 urtetik gorakoentzat **MATRIKULA ZABALIK irailaren 25era arte**
- Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA**
- Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat. (Baldintzak betez gero)
- **Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.**
- **Autoikaskuntza Internet bidez.**
- **Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.**
- **Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.**
- **Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkataria eta ostalaritza)**
- **Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)**

Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

Euskara ala ezkara ingurune digitalean?

ELGOIBAR - URRIAK 5, LARUNBATA - EGUN OSOKOA

JOKIN TRIKITIXA

esnatzeko

AINHOA ARREGI

euskara sarean

IMANOL EPELDE

baliabide teknologikoak
hezkuntzan

JOSU LANDA

kultura sarean

ANGERIÑE ELORRIAGA

euskara sarean. marka berria

HARKAITZ ZUBIRI

sozializatzen dugu
daukaguna?

JOSU WALIÑO

zergatik euskara
mundu digitalean?

GABI DE LA MAZA

txantxangorria kantuan!

INES OSINAGA

LOREA ARGARATE

Mauriziak ez dau inor hill!

MANEX GARAIO

BERTOL ARRIETA

Kode Poesiaren
aurkezpena

LEIRE PALACIOS

ASIER GARAIALDE

GORKA JULIO

XABIER LANDABIDEA

burujabetza digitala:
nola eta zertarako?

PINTXO-BAZKARIA



Izena eman edota gurekin harremanetan jartzeko:

www.elgoibarkoizarra.eus

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626 (Imanol)

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



DANOBATGROUP



Erabedek:



Gipuzkoako Foru Aldundia